



www.pixkanakakaskari.org/lanaur

Merkatuko erreferentziak



Eurostoxx50: **-%22,9**
Ibex35: **-%15,4**
Bonoa 10urte: %3,29
KPI: %6 (Abuztua)

2022 metatutako emaitza

-%9,49

Zorroaren banaketa

Err. finkoa %62,2
Err. aldakorra %31,9
Inb. altern. %5,9




Iraila 2022

Urteko minimoak.

Merkatuetan atzeraldi ekonomikoarekiko beldurrak jarraitzen du. Hileko azken astea bereziki zorigaiztokoa izan da, %3 inguruko beherakadekin Amerikako burtsetan, interes-tasek gora egiten jarraitzen duten bitartean.

Gure BGAEaren epe luzerako estrategia egokia dela uste dugu, baina aurten bereziki zaila izaten ari da, eta hori ere eguneroko lanean jasaten ari gara.



Hauteskundeak Lanaur HIRUn

6 urtean behin bazkideek Gobernu-Organoretan duten ordezkaritza berritzen da. Azken Gobernu-Batzarrean hauteskundeak deitu dira Batzar Nagusian egungo ordezkaritza berritzeko.

Bozketa **azaroaren 22-23-24an** egingo da, boto elektronikoko bidez. Hautestontzi fisikoa azaroaren 24an jarriko da lbaetako eraikinean.

Zer hautatzen da?

| | Batzar Orokorra | Eraketa |
|---|-------------------------|--|
| BGAEaren organo gorena da. Urtero biltzen da ohiko bilkuran. | Batzar Orokorra | Kutxabank 20 Bazkideak 20 |
| | | Gaur egun |
| | | PK 7 |
| | | CCOO 4 |
| | | ALE 4 |
| | | ELA 3 |
| | | LAB 2 |
| | | |
| | Gobernu Batzarra | Eraketa |
| BGAEaren zuzendaritzaz arduratzen da, eta Batzar Orokorrari erreserbatuta ez dauden ahalmenak ditu. | Gobernu Batzarra | Kutxabank 6 Bazkideak 6 |
| | | Gaur egun |
| | | PK 2 |
| | | CCOO 1 |
| | | ALE 1 |
| | | ELA 1 |
| | | LAB 1 |



PK aldizkariaren harpidedunek Lanaur HIRUri buruzko informazio-eskuliburu bat jaso dute, ekarpenei, xedapenei, baliaezintasun-estaldurei eta abarri buruzko informazioarekin.